


ARGAZKI LEHIAKETAKO DEIALDIAREN OINARRIAK

“BERDINTASUNA: LURRETIK HODEIRA”

2027 ko egutegia



**Servicio de Igualdad
Berdintasun Zerbitzua**

Ayuntamientos de Cendea de Olza/Oltza
Zendea, Etxauri, Ciriza/Ziritza, Echarri/Etxarri,
Bidaurreta, Belascoain/Beraskoain,
Zabalza/Zabaltza y Valle de Olló/Ollaran.

1. OINARRIA: XEDEA ETA DATA

Oltza Zendea, Etxauri, Ziritza, Etxarri, Bidaurreta, Beraskoain, Zabaltza eta Ollarango Udaletako Berdintasun Zerbitzuak antolatutako argazki lehiaketa 2026ko uztailea, abuztua eta irailean zehar burutuko da. Lehiaketa honen helburu nagusia da emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren gainean sentsibilizatzea da, aurkeztutako argazkiekin egutegi partehartzaile bat sortuz.

2. OINARRIA: PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketan 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte har dezakete, eta gehienez argitaratu gabeko bost argazki aurkeztu ditzakete.

Oltza Zendea, Etxauri, Ziritza, Etxarri, Bidaurreta, Beraskoain, Zabaltza eta Ollarango ez diren parte hartzaileak ez dira kontuan hartuko.

3. OINARRIA: GAIA

Argazkiek landa-eremuko emakumeen nortasuna eta bilakaera islatu beharko dituzte denboran zehar; landa-eremuko emakumeei esleitutako genero-estereotipoak hautsi, eta emakume horien modernitatea aldarrikatu, balioetsiz bai betidanik egin dituzten zeregin tradizionalak, bai modernoak eta berritzaileenak.

4. OINARRIA: AURKEZTEKO MODUA

Parte hartu nahi dutenek helbide elektronikoa honetara bidali beharko dituzte beren irudiak: berdintasun_teknikaria@ayuntamientoolza.com. Bestela, udal bulegoetan utzi daitezke CD edo drive batean.

Aurkeztu beharreko argazkien ezaugarri teknikoak hauek izanen dira:

- JPEG formatu digitala izan beharko dute.
- Zuri - beltzeko edo koloretako argazkiak aurkez daitezke lehiaketara.
- Gehienez bost argazki pertsona bakoitzeko.
- Aurkeztutako argazkiak originalak eta argitaragabeak izan beharko dute, eta ezin izango dira aurretik sarituak izan inongo lehiaketa edo sariketatan, ezta erakutsiak, argitaratuak edo hedatuak izan ere, edozein bitartekoren bidez.
- Parte-hartzaileek erabateko erantzukizuna hartzen dute hirugarrenen eskubiderik ez dagoela bermatzeko, baita irudi-eskubideei buruzko edozein erreklamazio saihesteko ere..
- Irudiez gain, testu fitxategi bat ere izan beharko dute, datu hauekin:
 - Datu pertsonalak: Izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.
 - Lanen izenburua. Argazkiekin batera azalpen laburrak (titulua, argazki oina...) eransteko aukera emango da, argazkien edukia azaldu eta gaiaren inguruko hausnarketak egingo dituzten azalpenak alegia.

Parte-hartzaile bakoitzari mezu bat bidaliko zaio, artxiiboak jaso direla eta irudiak behar bezala bistaratu direla egiaztatzeko. Irudi guztiak jaso ondoren, epaimahaiari emango zaizkio, egileen anonimatua gordez.

5. OINARRIA: AURKEZTEKO EPEA

Uztailaren 1etik irailaren 27ra arte, biak barne.

6. OINARRIA: OINARRIEN ARGITALPENA

Oinarriak udal bakoitzaren iragarki taulan, udal bakoitzaren webgunean eta udalaren egoitza elektronikoan kontsultatzen ahalko dira.

7. OINARRIA: EPAIMAHAIA

Epaimahaia, “Berdintasunerako Kudeaketa Mahaia” izango da. Epaimahaiko lehendakari gisa, Ollarango Udaleko alkatea izanen da. Idazkaria berriz, berdintasun teknikaria izanen da.

Epaimahaiak edozein arazo konpontzeko baimena du, oinarrietan jasota egon ala ez, eta gatazkak eta ezustekoak konpontzeko eskumena eta aginpidea izango du.

Epaimahaiak botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak eta bere erabakia apelaezina izango da. Halaber, sari guztiak edo batzuk eman gabe uzteko eskubidea ere beretzat gordetzen da, aurkeztutako eskabideek bere irizpideen arabera merezimendu nahikoak ez badituzte.

Epaimahaiak sariak eman gabe uzteko aukera izanen du, aurkeztutako argazkiak nahikoak ez badira edo egutegian argitaratzeko gutxieneko kalitatea lortzen ez badute.

8. OINARRIA: BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak irizpide hauek hartuko ditu oinarri puntuaziorako:

- Argazkia Oltza Zendea, Etxauri, Ziritza, Etxarri, Bidaurreta, Beraskoain, Zabaltza eta Ollarango herrien bizitzaren isla izatea.
- Lanaren edukia eta proposatutako gaiarekin duen lotura.
- Argazkien kalitatea.
- Originaltasuna.

9. OINARRIA: SARIAK

Sari hauek ezarri dira:

- Lehen saria: 200 €
- Bigarren saria: 100 €
- Hirugarren saria: 50 €

10. OINARRIA: EPAIMAHAIAREN ERABAKIA ETA SARI BANAKETA

Epaimahaiaren erabakia 2026ko urriaren 5ean jakinaraziko da eta akta egingen da.

Sarituei telefonoz jakinaraziko zaie erabakia.

Oltza Zendea, Etxauri, Ziritza, Etxarri, Bidaurreta, Beraskoain, Zabaltza eta Ollarango udalen iragarki tauletan eta web orrietan argitaratuko da.

Sariak emateko ebazpena, Alkatetzaren ebazpenaren bidez egingen da.

11. OINARRIA: AURKEZTUTAKO OBREN JABETZA

Saritutako argazkien egile eskubideek bere horretan jarraituko dute.

Berdintasun Zerbitzuak aurkeztutako irudiak gordeko ditu bere argazki funtsean, eta denbora mugarik gabe erabili ahal izango ditu irabazteko asmoko jardueretan, karteletan, katalogoetan, erakusketetan, lehiaketaren zabalkundean eta Berdintasun Zerbitzuak egiten dituen lan guztietan, eta ez zaizkie hirugarrenei utziko.

12. OINARRIA: ORGANO ESKUDUNA

Deialdia onetsi eta ebazteko organo eskuduna Oltza Zendeako Udaleko Alkatea da, Epaimahaiak bere epaian egindako proposamenaren ondoren.

13. OINARRIA: OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartze hutsak berekin dakar oinarri arautzaileak erabat onartzea.

14. OINARRIA: AZKEN ARAUAK

Lehiaketako epaimahaiak edozein ezbehar ebazteko eskumena izanen du. Oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein gorabehera lehiaketa garatzeko modurik egokienean ebatziko du antolakuntzak.